

KONPROMISO AKADEMIKOARI BURUZKO OHAR GARRANTZITZUAK

- A) [KREDITUAK AINTZATESTEN IRIZPIDEAK](#)
- B) [KONPROMISO AKADEMIKO EGITEA](#)
- C) [KOMPROMISO AKADEMIKOAN ALDAKETAK](#)
- D) [IRAKASGAIEEN AINTZATESPEN AKADEMIKOAK](#)

A) KREDITUAK AINTZATESTEN IRIZPIDEAK

Egonaldiaren arabera, mugikortasunean egin beharreko kreditu kopurua hurrengoa da (UPV/EHU matrikulatutakoak):

- **Lauhilabete bakarra: 24 kreditu gutxienez eta 30 kreditu gehienez.**
- **Ikasturte osoa: 48 kreditu gutxienez eta 60 kreditu gehienez.**
- Helburuko unibertsitatean burutu beharreko kreditu kopuruak bat egin behar du UPV/EHU matrikulatutakoekin. Helburuko kreditu-sistema ECTS izango ez balitz, dagokion baliokidetasuna egingo da.
- Helburuko unibertsitatean beharrezkoak diren kredituren bat gehiago eginez gero, ez dute Konpromiso Akademikotik kanpo inolako aintzatespenik izango.
- Konpromiso Akademikoan sartuko diren irakasgaiak, salbuespenik ezean, **mugikortasunari dagokion ikasturtekoak** izango dira eta, gehienez, 60 ECTS aintzatetsi daitezke. Helburuko unibertsitateko irakasgaiak edozein ikasturte edo motakoak izan daitezke.
- Atzerriko unibertsitatean hitzarmenaren barruan sartutako irakasgaien deialdiei dagokienez, unibertsitate horretan irakasgai horietarako eta mugikortasuna egiten den ikasturtean egiten diren deialdietara aurkezteko eskubidea izango du ikasleak.

- Atzerriko unibertsitatean hitzarmenaren barruan sartutako irakasgaien deialdiei dagokienez, unibertsitate horretan irakasgai horietarako eta mugikortasuna egiten den ikasturtean egiten diren deialdietara aurkezteko eskubidea izango du ikasleak.
- Mugikortasunaren ikasturtean ikasleak hitzarmenean jasotako irakasgaiak atzerriko unibertsitatean gainditu ez baditu edo deialdietara aurkeztu ez bada, UPV/EHUUn ez du horien azterketa egiteko eskubiderik izango, eta atzerriko unibertsitateko arautegi akademikoak ezarritako deialdiak erabili beharko ditu.
- **UPV/EHUko OINARRIZKO ETA NAHITAEZKO irakasgaiak:** atzerriko unibertsitateko irakasgaien edukiek/gaitasunek antz handia izan beharko dute UPV/EHUUn aintzatetsi nahi direnekin. Atal hau egiaztatzeko, atzerriko unibertsitateko irakasgaien EDUKI/GAITASUNEN PROGRAMAK dekanordeari aurkeztu behar zaizkio, aintzatestespen akademikorako proposamena balioetsi eta onartu ahal izateko.
- **UPV/EHUko HAUTAZKO IRAKASGAIAK:** malgutasun handiagorekin jokatu da. Atzerriko unibertsitateko irakasgaiak eduki ezberdinak izan ditzakete (ez da programarik aurkeztu behar) beti ere espezializaziorik burutzeko ez baldin bada edo bigarren hizkuntzak ez badira.
- **EZIN dira Konpromiso Akademikoan sartu:**
 - UPV/EHUUn "gainditutzat" edo "suspentsotzat" jotako irakasgaiak.
 - UPV/EHUko lehen eta bigarren mailako irakasgaiak. Hala ere, Itzulpengintza eta Interpretazio Graduak ikasleek bigarren mailako irakasgaiak bai sar ditzakete, baina inoiz ez lehen mailakoak.
 - "Konpromiso Akademikoan" sartu gabeko bestelako jarduerak (kongresuak, ikastaroak eta abar).
 - Gradu Amaierako Lana.

- **Konpromiso Akademikoan sartu gabeko irakasgaiak:** ikasleek eskubidea izango dute azken ebaluazio bidez ebaluatuak izateko, etengabeko ebaluazioan parte hartu zein hartu ez. Eskubide hori baliatzeko, ikasleak etengabeko ebaluazioari uko egiten diola jasotzen duen idatzi bat aurkeztu beharko dio irakasgaiaren ardura duen irakasleari eta, horretarako, 9 asteko epea izango du lauhilekoko irakasgaien kasuan edo 18 astekoa urteko irakasgaietan, ikastegiko eskola egutegian zehaztutakoarekin bat lauhilekoa edo ikasturtea hasten denetik kontatzen hasita. Irakasgaiaren irakaskuntza gidan epe luzeagoa ezarri ahal izango da. Arautegia: <https://www.ehu.eus/eu/web/estudiosdegrado-graduikoikasketak/ebaluaziorako-arautegia>

B) AURRETIAZKO KONPROMISO AKADEMIKOA EGITEA

Informazio bileraren ostean, Mugikortasun Programen Bulegotik Konpromiso Akademikoa egiteko eta sinatzeko prozedura e-mail bidez jasoko duzue.

Konpromiso Akademikoa egiteko prozedura:

- 1) Aurretiazko Konpromiso Akademikoa GAUR aplikazioan bete.
- 2) "Erasmus-AL-BN Aurretiazko Konpromiso Akademikoa" dokumentua zuzen beterik eta "word" formatuan dekanordeari posta elektronikoz igorri (nazioartekoak.lettrak@ehu.eus).
- 3) Letren Fakultateko Oinarrizko/Nahitaezko irakasgaiak aintzatesteko, helburuko unibertsitateko irakasgai baliokideen programak bildu eta dekanordeari posta elektronikoz igorri (nazioartekoak.lettrak@ehu.eus).
- 4) Atzerriko ikasketa egonaldi osoan zehar indarrean egongo den istripu eta aberriratze aseguru poliza hurrengo helbidera bidali: nazioartekoak.lettrak@ehu.eus.
(aseguruaren poliza bidali ezean, ez da Konpromiso Akademikoa sinatuko)

- 5) **Gainera (Erasmus soilik):** "Online Learning Agreement Erasmus" dokumentua zuzen beterik eta "word" formatuan dekanordeari posta elektronikoz igorri (nazioartekoak.letrak@ehu.eus).

Aurretiazko Konpromiso Akademikoa dekanordeak aztertuko du. Zuzen balego, dekanordeak ikasleari Konpromiso Akademikoa (*Learning Agreement*) sinaturik eta zigilaturik itzuliko dio.

C) KONPROMISO AKADEMIKOAN ALDAKETAK

- 1) Dekanordeari mezu elektronikoa igorri (nazioartekoak.letrak@ehu.eus) aldaketen berri **argi eta labor** azalduz. "Erasmus – AL – BN Konpromiso Akademikoa aldaketen eskaera" dokumentua bete, mezuari atxiki eta irakasgai berrien programekin batera bidali. Aipaturiko dokumentuko taula bietan konpromiso akademikoko irakasgai guztiak jarri beharko dira, ez soilik aldatu nahi diren irakasgaiak.
- 2) **Gainera (Erasmus soilik):** "Online Learning Agreement Erasmus" dokumentuko "Changes to the Learning Agreement" atala zuzen beterik eta "word" formatuan dekanordeari posta elektronikoz igorri (nazioartekoak.letrak@ehu.eus).
- 3) Kredituen aintzatespenerako proposamen berria onarturik izateko, dekanordearen onespén erantzunari itxaron. Bere onespén lortu ondoren, dekanordeak GAUREn aldaketak egingo ditu eta Konpromiso Akademiko eguneratua ikasleari sinaturik eta zigilaturik itzuliko dio.

EPEMUGAK Learning Agreement-ean / Konpromiso Akademikoa aldaketak eskatzeko (epe hauetatik kanpo ez da **inola ere** aldaketarik onartuko):

- Lehen lauhilabeteko irakasgaiak: **2022ko urriaren 31.**
- Bigarren lauhilabeteko irakasgaiak: **2023ko martxoaren 31.**

Alemanian ikasten ari diren ikasleek, bestelako egutegi akademikoa dutenez, epea luzaturik izango dute: lehen lauhilabetea, 2022ko azaroaren 20ra arte; bigarren lauhilabetea, 2023ko apirilaren 20ra arte.

D) IRAKASGAIEEN AINTZATESPEN AKADEMIKOA

UPV/EHUK ezarritako irizpideak jarraituko dira:

- Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatean irakasgai baten aitortza lortzeko atzerriko unibertsitatean hainbat irakasgai egin behar badira, unibertsitate horren irakasgaien kreditu kopuruaren batez besteko haztatuaren arabera lortuko da lehenengo irakasgaiaren kalifikazioa. Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatean irakasaia gainditzeko, hamarretik lau puntu eduki behar dira gutxienez atzerriko unibertsitatearen irakasgai bakoitzean, kalifikazioen baliokidetasuna egin ondoren, eta batez besteko haztatuaren emaitzak, gutxienez, bost puntukoa izan behar du. "Ez aurkeztua" kalifikaturiko irakasgaien kasuan, batez bestekoa egitean nota zerotzat zenbatetsiko da.
- Atzerriko unibertsitatean ikasleak gainditutako irakasgai batek UPV/EHUren hainbat irakasgaiaren aintzatespena baldin badakar, irakasgai horien kalifikazioa bat etorriko da aipatutako irakasgaien lortutakoarekin.
- Kalifikaziorik ez baldin badago, eta "Pass" soilik agertzen baldin bada, helburuko unibertsitateak kreditu horien lorpena ziurtatzen badu, irakasgai horren nota "GAINDITUA: 5.00" izango da. Helburuko unibertsitateagatik kredituen aintzatespenik ez balego, kalifikazioa EZ AURKEZTUA izango da.

AZKEN KONPROMISO AKADEMIKOA HIRU ALDEEK SINATURIK IZAN EZEAN HELBURUKO UNIBERTSITATEAN IKASKETA ALDIA AMAITU AURRETIK, EZ DA INOLAKO AINTZATESPEN AKADEMIKORIK EGINGO.